

AGIRITEGIKO ETA DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARIA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA / DESCRIPCION RESUMIDA DEL PUESTO

Alorreko dokumentu-funtsa kudeatzea.

Dokumentu-funtsaren zaintzarako koadroa lantzea eta kudeatzea.

Polizia-zentroetan SAZL langileek kudeatutako dokumentazioa artxibatzeko irizpideak ezartzea.

Arloan izapidetutako jatorrizko espedienteen jarraipena.

Ertzaintzako langileen titulazio akademikoen edo bestelako titulazioen, hizkuntzen, argitalpenen, komunikazioen eta ikerketen erregistroa kudeatzea.

Ertzaintza Zerbitzuan programaren I. eta II. kapituluei dagokien aurrekontu-gastuaren jarraipena.

Zuzendaritzako argitalpen teknikoak kudeatzea.

EGINKIZUN AZALPEN ZEHATZA / DESCRIPCION DETALLADA DE LAS TAREAS

-Alorrean kudeatutako dokumentu-serieak identifikatzea eta haietako bakoitza aldi batean edo behin betiko gordeko den edo suntsituko den baloratzea.

-Funtsen zaintzarako koadroa lantzea eta, barne arau bat ezarrita, hura kudeatzea.

-Dokumentu-transferentziarako eta espurgorako prozedura zuzen aplikatzen dela ikusi eta egiaztatzea.

-Polizia-zentroetako SAZL langileekiko komunikazio zuzena ezartzea artxibatzeko irizpideak emateko eta haiek egindako kontsultei erantzutea.

-LPZko aldaketei eta Ertzaintzako lanpostuei buruzko jatorrizko espedienteen jarraipena: prozeduran sortutako dokumentuak biltzea, antolatzea, indexatzea, baita haiek euskarri digitalean nahiz paperean gordetzea eta zaintzea.

-Titulazio akademikoen erregistroa kudeatzea, hau da:

Erregistroan alta ematea dagokion ala ez.

Ofizialak ez diren titulazio berriak, argitalpenak, komunikazioak, irakaskuntza-jarduerak eta ikerketak kodetzea.

Erregistroen alta, aldaketa eta ezabatzea gainbegiratzea.

Dokumentuen eskaneatzea koordinatzea.

Ertzaintzaren espediente akademikoa, hizkuntzak eta ikastaroak artxibatzearen eta zaintzearen erantzukizuna hartu.

-Aurrekontuko I. eta II. kapituluari dagozkion gastua kontrolatzeko dokumentuak egitea, hilero.

-Saileko argitalpen propioak lantzeko zereginak egitea.

-Arloko berezko zerbitzuen kudeaketan laguntzea.